

INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA

KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA

Urteko Kudeaketa Plana 2026

Onartuta 2026ko urtarrilaren 23an egindako Kontseiluaren bileran



IVAC-KREI Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) baitako sailarteko unibertsitate institutua da. Institutuaren jarduera nagusiak dira ikerketa, aholkularitza eta prestakuntza espezializatua eta diziplinartekoa zientzia kriminologiko eta biktimologikoetan; era berean, ikerketaz eta gizarteari ezagutza transferitzeaz arduratzen da.

Proiektuak egikaritzean Europa mailako presentzia eta nazioarteko sareetako integrazioa indartzen du; izan ere, erreferente izatea du helburu ikerketaren eta irakaskuntzaren bikaintasunagatik eta gizarteari eskainitako zerbitzuagatik.

IVAC-KREIk bikaintasuneko, zerbitzu publikoko eta gizarte ardurako irizpideak kontuan hartuta kudeatutako institutua izateko konpromisoa mantentzen du, urte anitzeko plan estrategikoaren ildotik, bereziki honako alderdi hauei dagokienez:

- finantzaketa-esparru irekia, anitza eta egonkorra;
- ikertzaile iraunkorren plaza berriak;
- eta ikerketa, aholkularitza eta irakaskuntza jarduera etengabe hobetzea, digitalizatutako gizartera egokituta eta erronka demografiko, sozial, indarkeriazko eta klimatikoetan murgilduta.

IVAC-KREIren Urteko Kudeaketa Plana (UKP) helburuen arabera zuzendaritza tresna da aurrekontu ekitaldi bakoitzerako. Barne hartzen ditu egin nahi diren jarduerak 2024-2028 Plangintza Estrategikoaren esparruan zehaztutako helburuak betetzeko. Helburu horiek 2024ko lehenengo hiruhilekoan eztabaidatu ziren, Plangintza Estrategikoa prestatu zenean.

Mundu mailako desparekotasunak, polarizazio bortitzak eta gerra gatazkek gora egin dute, eta IVAC-KREIk errespetua eta elkarriketa ahalbidetzen ditu, gatazkak konpontzeko lehentasunezko bide gisa. Halaber, gizartea gero eta kulturantza eta dibertsoagoa da, giza eskubideak defendatzen ditu, bereziki talde ahaztuenenak.

1. ARDATZA. IKERKETA

INSTITUTUAREN PROFIL IKERTZAILEA BERMATU ETA SUSTATZEA, INDARREAN DAGOEN ARAUDI BERRIA KONTUAN HARTUTA (IKUS PE)

1.1 helburua: ikertzaileen prestakuntza sustatzea		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
1.1.1. Institutua doktorego aurreko eta ondoko kontratuak aplikatzeko ikastegia izan dadin sustatzea, sail eta ikastegiekin lankidetzan, hala badagokio	- Berdintasun baldintzetan eta ikaskuntzarako jarraipen neurrien bidez, egindako eta aurkeztutako eskaera guztiei laguntzea. Doktorego ondoko eskaerak (Juan de la Cierva) eta aurrekoak (Zientzia Ministerioaren proiektuari lotuta) ebazteke.	Arduraduna: Gema Varona
1.1.2. Ikertzaileen prestakuntza ahalbidetzea eta sustatzea, UPV/EHUK, eta, hala badagokio, IVAC-KREIk eskainitako ikastaro eta prestakuntza ekintzen bidez, besteak beste ikerketarako mintegi iraunkorren bidezko saio espezifikoetan.	- Prestakuntza jarduerak sustatzea, akreditazio eta transferentziaren esparruan zein ikerketaren metodologian berritzaileak diren alderdien bidez. Biblioteka, Ikerketako Zerbitzu Nagusiak. Ikerketa mintegi propioak egitea.	Arduraduna: Isabel Trespaderne eta Ane Viana
1.1.3. Ikerketarako mintegi iraunkorren dinamika indartzea.	- Lauhilekoan behin gutxienez mintegi bat antolatzen jarraitzea, IVAC-KREIko ikertalde guztietako ordezkarien parte-hartzea azpimarratuz eta aurretik ezarritako eta adostutako egutegia jarraituz. Halaber, ad hoc mintegiak egitea, ikertzaile berrien eta IVAC-KREIra edo mintegira berariaz gonbidatutakoen ezagutzak partekatzeko. IVAC-KREIko edozein kide edo laguntzailek mintegiak proposatu ditzan sustatzea, gizartera irekiz.	Arduraduna: Leire Berasaluze / JL de la Cuesta
1. 1. 4 IVAC-KREIko kideak berritu eta areagotzea, diziplina anitzeko ikuspegiarekin.	-Errektoreordetzari kategoria profesionala aldatu duten kideak berritu ditzan (H. Colomo, A. Viana, I. Orbegozo) eta kide berriak sartzeko (I. Alkorta, E. Terradillos eta A. Leturia) eskatzea, etorkizuneko erretiroak aurreikusteko.	Arduraduna: Gema Varona, IVAC-KREIko edozein kidek edo eskatzaile interesdunek eskatuta edo lagunduta.
1.1.5. Institutuko ikertzaileek beste ikastegi batzuetan egonaldiak egin ditzaten sustatzea eta kanpoko ikertzaileak hartzea.	- Egonaldietarako deialdiak zabaltzea, eta, edonola ere, Institutuaren misioarekin eta ardatz estrategikoekin bat datozen deialdietarako sarbidea hedatzea. Unibertsitate entitate eta entitate judizial desberdinekin lankidetz hitzarmenak sinatzea.	Arduraduna: Jorge López

1.2 helburua: ikerketa bikaina eta diziplina anitzekoa sustatzea, jarduera zientifikoaren nazioartekotzean lagunduko duena		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
1.2.1. IVAC-KREIko ikertalde egonkorak babestea, bai eta Institutuko Kontseiluaren oniritzia lortzen duten ikertalde berrien ekimenak ere.	- Krimen Zientzietako Ikerketa Taldea (GICCAS) ikertalde babestea. 2026an berritzea. - Europako eta nazioarteko proiektuetarako eskaerak eta parte hartzea babestea, bai eta eratu daitezkeen beste edozein ikertalde ere.	Arduraduna: Gema Varona
1.2.2. Institutuko, jakintza arlo desberdinetako eta unibertsitate edo ikastegietako ikertaldeen edo ikertzaileen arteko lankidetzak bultzatzea, taldeen diziplinarteko izaera areagotuz eta tamaina handiko baterako proposamenak jorratuz, horien eragina eta ikusgarritasuna babesteko.	- Lauhileko bakoitzean ikerketarako mintegi iraunkor bat egitea. - Antonio Beristain Ipiña eta Jean Pinatel sarietan zein kanpoko bestelako sarietan (hala nola Javier Gómez Elosegui saria) parte hartzea hedatzea eta sustatzea. - IVAC-KREIko kide izan daitezkeen ikertzaileen parte-hartzea babestea.	Arduraduna: Virginia Mayordomo, Leire Berasaluce, Izaskun Orbegozo
1.2.3. Harremana estutzea tokiko, estatuko eta nazioarteko ikertalde ospetsuekin, mugikortasuna, trukea eta lankidetzan egindako ikerketa proiektuak sustatuz.	- Sareetan parte hartzea, bereziki Enlight eta Erasmus+ programetan.	Arduraduna: Gema Varona, Idoia Igartua, María Ochandorena, Malena Maceira, Devi Yerga eta Ane Viana
1.2.4. Institutuko ikerketa ildoak mantendu eta garatzea.	- Zeharkako eta koordinazio ekintzak eta hitzarmen berriak sina daitezkeen sustatzea (2026an gazteen justiziarik buruzko hitzarmena eta segurtasunari buruzko hitzarmena. 2025ean espetxe gaiari buruzko hitzarmena sinatu zen).	Arduraduna: Gema Varona
1.2.5. Nazioarteko, estatuko eta erkidegoko deialdietan parte hartzea hedatzea, indartzea eta babestea.	- Proposamenak aztertzeaz eta egiteaz arduratuko den pertsona bat aldi baterako kontratatuta dadin sustatzea. - Deialdietan parte hartzea sustatzea, eta ikertalde mailan hedatzea; horretarako, astero deialdiak berrikusiko dituen pertsona bat proposatuko da.	Arduraduna: Ana Pérez Machío eta Gema Varona María Ochandorena, Devi Yerga eta Malena Maceira, doktorego aurreko eta ondorengo kontratuak dituzten beste pertsona batzuen laguntzarekin

1.3 helburua: ikerketaren bitartez gizartearen ezagutza eta berrikuntza eskaerei erantzutea		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
1.3.1. Ikerketa finkatu eta sustatzea entitate publiko eta pribatuekin.	- Jardunaldi batzuk antolatzea José Luis de la Cuesta irakaslearen omenez, eta Bitartekaritzaren Munduko Foroari lotuta, interesa izan dezaketen gizarte eragileekin, beren ikerketa, ebaluazio, aholkularitza edo prestakuntza beharrak entzuteko. - Norgehiagoka deialdietan parte hartzea sustatzea eta laguntzea, interesekoak diren gaien esparruan. - Elkarte, GKE eta enprekin deialdietan parte hartzea baloratzea.	Arduraduna: IVAC-KREIko ikertaldeak INak, interesa duen edozein kolaboratzailearekin batera
1.3.2. Ikerketaren emaitzak arloko aldizkari zientifikoetan argitaratzea, ezagutza hedatzeko ¹	e-Eguzkilore, indexazioa hobetzeko baliabideak bidaltzea, indexazioa eta gordailuetako sarbide irekia sustatuz, indarrean dagoen araudia betetzeko. Estatuko eta nazioarteko beste aldizkari batzuetako argitalpen kontseiluetan parte hartzea eta babestea. Ikerketa hedatzeko tresna berriak hedatzea: podcasta. Halaber, ikerketa datuetako gordailu publikoetan argitaratzea, FAIR irizpideen arabera. Institutua ikusgarri egitea “Noche Europea de la Ciencia” ekitaldian zein Zientzia Astean.	Arduraduna: Ana Pérez, argitalpen taldea eta IVAC-KREIko ikertaldeetako INak.

¹ Ikus ikerketa jarduera baluatzeko Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalaren irizpide eguneratuak.

2. ARDATZA. PRESTAKUNTZA

PRESTAKUNTZA JARDUERA BERRITZAILEA ETA KALITATEZKOA MANTENTZEA.

2.1 helburua: prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa eskaintzea, aurrez aurre zein online, egungo inguruneko beharrei etorkizuneko ikuspegiarekin erantzungo diena

Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
2.1.1. Prestakuntza espezializatua diseinatzea eta ezartzea, gizarte entitateekin, erakundeekin eta enpresekin batera.	- Kriminologia Gradua osatzeko graduondoko bat diseinatzeko aukera aztertzea. Zehazki, Gizarte Langintzako Graduarekin batera; izan ere, Kriminologia zein Gizarte Langintza graduek ez daukate doktorego programarik. Lantzen hasi ginen 2025ean. - Ikastaro gehigarrien proposamenak sustatzea ikertalde desberdinetatik. 2026an mikrokredentzialak landuko ditugu eta "Biktimekin Lan Egitea" graduondokoarekin jarraituko dugu.	Arduraduna: Alberto Olalde, Juan Aldaz eta Ana Pérez Machío Arduraduna: Proiektuetako INak.
2.1.2. Aholkularitza sustatzea inguruko beharrei erantzutera bideratutako estrategia gisa.	- Justizia Errestauratiboaren Laborategia indartzea (JEL).	Arduraduna: Gema Varona

2.2 helburua: prestakuntzaren nazioartekotzea sustatzea, Akitania ardatzeko unibertsitateen parte-hartzearen, Erasmus + proiektuen eta lankidetzaren bidez, eta egungoak indartzea

Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
2.2.1. Akitania ardatzeko unibertsitateen eta Erasmus + lankidetzaren eta parte hartzearen sustatzea, IRI, IK eta beste kolektibo batzuen mugikortasuna areagotuz.	- Baionarekiko lankidetzaren indartzea, lankidetzaren esanguratsua ekarriko duten egonaldiak sustatuz, IRI akreditazioen esparruan indarrean dagoen araudiaren arabera. - Ikerketa egonaldiak sustatzea atzerriko ikerketa zentroetan, orokorrean	Arduraduna: Isabel German

3. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA ANTOLAKETA HOBETZEA.

3.1 helburua: IVAC-KREIren komunikazioa eta irudia hobetzea		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
3.1.1. Komunikazio eta informazio kanalak indartzea, kolektibo desberdinen parte hartzea sustatzeko eta Institutuko helburuekin lerrokatzea ahalbidetzeko.	- 2024-2028 PEa eta 2026 UKPa ezagutzera ematea IVAC-KREIko kideen artean. - Institutuko kolektibo desberdinen proposamenak artatzea.	Arduraduna: Isabel Trespaderne eta Jorge López
3.1.2. IVAC-KREIko Ohorezko Batzordea aktibatzea	- Ohorezko Batzordearen ekarpena indartzea, bereziki plangintza estrategikoaren ildo orokorren, gizartearekiko harremanen, presentziaren eta nazioarteko harremanen esparruan.	Arduraduna: JL de la Cuesta
3.1.3. Institutuaren presentzia eta irudia sustatzea UPV/EHUn eta, bereziki, memoria eta jarduerena, web-orria hobetu, kudeatu eta diseinatuz eta sare sozialak erabiliz.	- Institutuaren presentzia eta irudia sustatzea web-orriaren bidez. - IVAC-KREIren eta bere jardueren presentzia hobetzea sare sozialetan eta komunikabideetan - Urteko Memoriarako informazioa eta datuak biltzeko sistema diseinatzea, kostu burokratikoak eta administratiboak murriztu eta banakako mozkinak eta mozkin instituzionalak areagotuko dituen.	Arduraduna: JL de la Cuesta eta Virginia Mayordomo, ikertzaile berrien laguntzarekin; zehazki, Devi Yerga, eta, hala badagokio, horretarako kontratatutako aldi baterako langileak
3.1.4. Aliantzen politika indartzea.	- Antonio Beristain Ipiña katedran laguntzea eta babestea, bere ondarea mantentzen eta hedatzen laguntzeko, bereziki A. Beristain sariaren bidez. - Nazio Batuekin lankidetzan aritzea (aurten IVAC-KREIk delitua prebenitzeko NBERen Kongresuan parte hartuko du), baita Europako Kontseiluarekin, International Society for Criminology elkartearekin eta nazioarteko beste sozietate zientifiko batzuekin ere. - Aliantzak indartzea beste kriminologia institutu/talde batzuekin, ikerketa zentroekin...	Arduraduna: JL de la Cuesta / Virginia Mayordomo Arduraduna: Gema Varona Arduraduna: Ana Pérez Machío

3.2 helburua: gastuaren eraginkortasun eta efizientzia hobetzea, eta baliabideak erakartzeko bide berriak ahalbidetzea		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
3.2.1. Kontrataturako pertsonen, IRIen eta AZPko langileen egoera hobetzen saiatzea, kanpoko finantzaketa oinarri hartuta.	Erakunde desberdinekin harremanetan jartzea, unibertsitatetik kanpo eta horren barruan.	Arduraduna: Gema Varona
3.2.2. Baliabideak bermatzea finantzaketa erakartzeko jarduketan bidez.	Ekitaldi instituzionaletan eta sozialetan ordezkaritza izatea eta parte hartzea.	Arduraduna: IVAC-KREI Kontseilua eta Ohorezko Batzordeko presidentea
3.2.3. Hitzarmenak eta/edo kontratuak sustatzea kanpoko entitateekin; bereziki, maila desberdinetako administrazioarekin eta tokiko erakundeekin.	Hedatze eta transferentzia jarduerak egitea, beharrak entzun eta detektatu ahal izateko.	Arduraduna: IVAC-KREI Kontseilua eta Ohorezko Batzordeko presidentea
3.3 helburua: Institutua antolatzean eta kudeatzean etengabeko hobekuntzako prozesuak indartzea.		
Ekintzak	2026ko jarduerak	Oharrak
3.3.1. Institutuko AZPko langileen garapen profesionala ahalbidetzea, ibilbide profesionalari dagokionez.	- Garapen profesionalari bideratutako prestakuntza ikastaroak ahalbidetzea.	Arduraduna: Jorge López
3.3.2. Hurbileko kudeaketa sustatzea Institutuko kideekin, beharrak detektatzeko eta balizko soluzioak artikulatzeko.	- Urtean zehar bilera periodikoak programatzea.	Arduraduna: Gema Varona

Beste laguntzaile batzuk:

José Álava Cabrero jauna (erretiratua, laguntza eskaini du) Polizia
Zientifikoa

M^a Carmen Baigorri Soler andrea

Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Auzitegiko Mediku Titularra

Reyes Goenaga Olaizola andrea

Magistratua. Bizkaiko Probintzia Auzitegia.

Francisco J. Llera Ramo doktorea

Katedraduna. Politika eta Administrazio Zientzia saila. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

José Antonio Lozano Alonso doktorea

Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala Saila. Informatika Fakultatea

Augusto Maeso Ventureira jauna

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko magistratua

Bárbara Torres Gómez de Cádiz dotorea

Irakasle agregatua. Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendu Saila. Psikologia Fakultatea.

Graduondoko laguntzaileak (2026an kanpoko profesionalekiko lankidetzara areagotu da GGKE eta asilo eta babesaren esparruan):

- Ana Eugenia Abasolo Telleria
- Jone Aliri Lazcano
- Rogelio Alonso
- Fernando Álvarez
- Enrique Azorín
- Teresa Díaz
- Javier Óscar Fernández Cucó
- Carlos Fernández de Casadevante
- Teresa Fernández Ezkurdia
- Javier Gómez Zapiain
- Cristina Guerricaechevarria
- Leire Izaguirre García
- Gregoria Mendiguren
- Victoria Noguerol
- María Ochandorena
- Ixusko Ordeñana Guezuraga
- Leire Padilla
- Noemí Pereda Beltrán - Jorge Porras
- Izaskun Porres García
- Rocío Salazar
- Asun Santos
- Ignacio José Subijana Zunzunegui
- Fermin Torrano
- Aitor Zaldua
- Javier Zaragoza Tejada

- **Samira Raiss**
- **Raquel González**